

**EUSKO JAURLARITZAKO
ETIKA PUBLIKORAKO
BATZORDEAREN
MEMORIA**

2018

EZ DAGO ALDAKETARIK ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAREN OSAERAN, EZTA ETIKA- ETA JOKABIDE-KODEAREN EDUKIAN ERE

2018an ez da aldaketarik izan EPBren osaeran. Batzordea osatzen jarraitzen dute 2017. urteari buruzko memoriaren 1. epigrafean aipatu genituen pertsona berberak.

- **Presidentea:** Josu Iñaki Erkoreka Gervasio (Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua)
- **Batzordekidea:** Andrés Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)
- **Batzordekidea:** Elisa Pérez Vera
- **Batzordekidea:** Txetxu Ausín Díez
- **Idazkaria:** Maite Iruretagoiena Ibarburen (IVAPeko zuzendaria)

Bestalde, indarrean dagoen Etika eta Jokabide Kodearen testuan ere ez da aldaketarik izan.

MEMORIAK AINTZAT HARTZEN DUEN ALDIAN AZTERTU ETA EBATZITAKO GAIAK

2018an, EPBk bost erabaki hartu ditu. Guztiak ere kargu publikodun interesdunek egindako kontsultak izan dira, eta ez da haien artean izan salaketa-idazki bakar bat ere aurtengo ekitaldian, EPBk dakiela.

Hauek dira EPBk 2018an hartutako erabakien alderdirik aipagarrienak:

a) Berriz ere zenbait kargu publikodun ikertu gisa judizialki deklaratzera deitu dituzte

Aurreko urteetan jada gertatu zen moduan –eta 2018 honetan, bereziki– EPBk esku artean izan duen gai nagusia izan da ikertu gisa judizialki deklaratzera deitutako kargu publikodunena.

Izan ere, aztertu dituen bost kasuetatik lau (gai guztien % 80) epaitegian ikertu gisa judizialki deklaratzeko zitazioen ingurukoak izan dira; ondorioz, ukituek kontsultak egin zituzten, EPBk haien egoera indibidualaren gaineko iritzia eman zezan. 1, 2, 3 eta 4/2018 gaiak dira.

2015, 2016 eta 2017 urteei zegozkien memorietan aipatu eta azaldu genuen jada EPB honek finkatutako doktrina gai horren inguruan. Arrazoibide horiek Etika eta Jokabide Kodearen 15.d) apartatuan funtsatzen dira; haren arabera, «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta haren sektore publikoko kargu publikodunak edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuz gero karguari dagozkion egiteko publikoak betetzeari lotutako gertaeren ondorioz, edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz, horren berri emango zaio Etika Publikorako Batzordeari, kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan. Prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodunek ez

dutela erantzukizunik, errehabilitazio publikoari ekingo zaio. Horrenbestez, kargua kendu baldin bazitzaion, berriro emango zaio, edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da».

Zinez, oraintsu arte zigor-jurisdikzioak jarduera politiko-administratiboan garrantzi gutxi zuela esan bazitekeen ere, 2017ko Memorian jada esaten genuen moduan, azkenaldi honetan areagotu egin da Administrazio Publikoaren jardueren aurkako gatazka judizialak administrazioarekiko auzi-jurisdikziora –horretarako berezko jurisdikzio-ordena dena– bideratu ordez, jarduera horien sustatzaile diren kargu publikodunen aurkako salaketak eta kereilak aurkeztuz ekiteko jardunbidea. Neurri horrek, gehienetan, eragin mediatiko eta higadura politiko handiagoa sorrarazten du administrazioarekiko auzi-prozesuaren bidetik jarduteak baino, eta nahasmen nabarmena eragiten die ukitutako pertsona eta organoei.

Aurreko memorietan jada azaltzen genuen asko zirela EPBren aurrean kontsulta egitea eragin zuen kausatan artxibatze librea edo behin-behinekoa ebazten zuten auto judizialak, kasuan-kasuan legokiekeen zigor tipoa aplikatzeko garrantzirik ez zutelako eta baldintzak ez betetzeagatik.

Iraganeko joera horri eutsi zaio aztergai ditugun auzietan, ikertu ditugun prozeduretako batean ere ez baita ahozko epaiketa abian jarri; hain zuzen ere, EPB honek deliberatu du eredugarritasun publikoaren betekizunak herritarren eskubide eta bermeen derrigorrezko errespetuarekin bateratzeko une prozesal horixe dela egokiena, eta, horrelakorik gertatuko balitza, gomendagarria litzatekeela kargu publikoduna kargugabetzea Eusko Jaurlaritzaren erakunde-irudia babesteko. Era berean, ez da ulertu aintzat hartu diren auzien inguruko egitateek gizarte-asaldura sorrarazi duten baldintzetan jazo direnik; eta, bide batez, ikuspegi horretatik ere ez da ulertu neurrizkoa zenik EPBk ezein kargudun kautelaz kargugabetzea 2018an.

b) Geroztiko bere jarduera-esparruan eragina zuten jardueretan kargu publikodun izendatu aurretik esku hartu izana

5/2018 auzian, EPBk aztergai izan zuen iraganeko jarduerak kargu publikodunaren gaur egungo jardueran eduki ditzaketen ondorioak, eta inguruabar horien aurrean egoki jokatzeko era.

Hortaz, aipatu den kasu horretan, izendapenaren aurretiazko jarduera intelektual eta profesionaletik sortutako hainbat material, behin kargu publikodun bihurtutakoan, Eusko Jaurlaritzaren hainbat deialditara aurkeztu ziren; batzorde independente batek balioesten zituen, baina, formalki, azken erabakiaren arduraduna aipatu kargu publikoduna bera zen. Gainera, jakinarazi zuen bere abokatuak negoziatzen ari zirela aipatutako material horietan kargudunak izan zitzakeen partaidetza eta ordainsariak.

Karguaren funtzioak «arduraldi osoz eta eskusiboz» betetzeko eskaera irmoa (Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen 12., 14. eta 19. artikulua) azpimarratzeaz gain, gaiaren mamiari ekin baino lehen, EPBk gogora ekartzen ditu kargu publikodunei aplikagarria zaien berriarazko bateragarritasun-araubidea eta dagozkien kasuak beren-beregi ebazteko beharra, baita titular diren sozietate-partaidetzetan kargu publikodunek bete behar dituzten ondare-mugapenak ere (Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen 22. artikulua).

Gaiaren mamiari dagokionez, EPBk azpimarratzen du Administrazio Publikoetako zerbitzuetan ari diren guztiek uko egin behar diotela interes pertsonalen bat duten gaiez arduratzeari; zuzenbide administratiboaren arau historiko eta oinarritzotzat hartzen den printzipioa da. Zehatzago, aipatzen ditu Kode Etikoaren eta Jokabide Kodearen Testu Bateginaren 6. eta 11. apartatuak; horien arabera ekidin egin behar da «faboritismoa egon daitekeen edo horren susmoa dagoen edozein praktika edo jarduketa»; eta

uko egin behar da «interes-gatazka egon badaiteke». Horregatik, eta karguduna batzordekide ez den «balorazio-batzorde» batek esku hartzen badu ere, EPBk deialdiak izapidetzeko sustatu diren prozeduretako fase batean ere ez esku hartzeko agintzen dio, baldin eta horietara aurkeztutako proiekturen batean hartu badu parte, nahiz eta izendapen ofiziala jaso baino lehenago izan.

PRESTAKUNTZA- ETA ZABALKUNDE-JARDUERAK

Eredugarritasunaren eta etika publikoaren esparruan, beren-beregi zabalkundearekin eta prestakuntzarekin zerikusia duten zenbait jarduketa lantzeari ekin zitzaion 2014 hartan abian jarritako ildoari eutsiz, 2018ko irailaren 13an Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak mintegi bat antolatu zuen Manuel Villoria Mendieta, Rey Juan Carlos Unibertsitateko Zientzia Politikoko katedradunarekin, zintzotasun-arriskuen ebaluazioa antolakunde publikoetan mintzagai hartuta.

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia 1/2018

ERABAKIA, EUSKO JAURLARITZAKO (...) SAILEKO (...)KO ZUZENDARI NAGUSI (...) ANDREAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA. GAIA: INSTRUKZIOKO EPAITEGIAN IZAPIDETZEN ARI DIREN AURRETIAZKO EGINBIDEETAN IKERTU GISA DEKLARATZEKO JASO DUEN ZITAZIOA.

1.- 2018ko otsailaren 21ean Etika Publikorako Batzordearen Idazkaritzara posta elektronikoz igorritako mezu baten bitartez, Eusko Jaurlaritzako (...) Saileko (...)ko zuzendari nagusi (...) andreak irizpena eskatu zion organo honi, Instrukzio Epaitegian izapidetzen ari diren aurretiazko eginbideetan ikertu gisa deklaratzeko jaso duen zitazioa dela-eta.

2.- Bere mezu elektronikoan, kontsulta hau sustatu duenak EPB honi gaztigatu zion 2018ko otsailaren 19an jaso zuela “epaitegi horren zitazio bat, (...)ean deklaratzeko aurretiazko eginbideetan”.

3.- Aurrekoari gaineratu dionez, “(...)ko (...)aren (...)an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren (...). zenbakian Ebazpena, (...)ko zuzendari nagusiarena, karrerako funtzionarioentzat (...)ko hautaketa-prozedurarako deia egiten duena” eta, behin hautaketa-prozesua amaituta, “(...)n ari den sindikatu bateko ordezkari batek salaketa aurkeztu zuen epaitegietan, eta salaketan adierazi zuen bazirudiela prozesu horretara onartu zituzten pertsona batzuk ez zutela parte-hartzeko aipatu betekizuna betetzen”.

4.- Gertatutakoaren aurrekariak –subjektiboak zein materialak– sakonago aztertuta jakin izan denez, Interesduna (...) Saileko (...)ako zuzendari nagusi izendatu zuten Dekretuaren bidez; garaiz eta forman atxiki zen Etika eta Jokabide Koderak —Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Kodea (aurrerantzean, EJK)—; eta kargu publikodunen katalogoan sartu zen —Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak (aurrerantzean, JKIGL) 4.1 artikuluan dioena aplikatuz egindako katalogoa—: bai hasierako katalogora —zeina azaroaren 18ko 2016/2014 Dekretuaz onartu baitzen— bai eguneratutako katalogora —zeina martxoaren 31ko 217/2017 Dekretuaren eranskinean baitago—.

5.- Aipatu epaitegiaren zitazio-zedulak, zeina EPB honen eskura utzi baitu kontsulta egin duenak, aurretiazko eginbideetan du jatorria. Eginbide horiek Instrukzio Epaitegian izapidetzen ari dira, (...)an diharduen sindikatu bateko ordezkari hautatu baten salaketaren ondorioz, ustez prebrikazio-delitu bat egiteagatik aurkeztua.

6.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 apartatuaren bigarren tartekiak aipatzen dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du, aho batez:

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak

1.- Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodea (EJK) sortzearen helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea izan zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko erronkari erantzutea ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua integritatea eta eredugarritasuna sustatzea da, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren efizientzia sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- EJK-k bost oinarrizko balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzen hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei.

3.- Horretarako, EJKren 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, EPBren eskumena da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Eskuartearen dugun erabakiaren gaia 5/2015, 6/2015, 9/2015, 13/2015, 3/2016, 4/2016, 6/2016, 7/2016, 8/2016, 4/2017, 5/2017, 7/2017, 8/2017 eta 9/2017 Erabakietan jasotzen denaren antzekoa da. Akordio horietan guztietan, EAEko sektore publikoko hainbat kargu

publikodunek aurkeztutako kontsultei erantzun diegu, EJKren 15.5 apartatuarekin lotutako kontsultak denak ere.

2.- EJKren 15. apartatuak, zeinak “eredugarritasunari eta kanpoko beste adierazpen batzuei buruzko jokabideak eta portaerak” biltzen baititu, hau arautzen du bosgarren puntuan: “Kargu publikodun eta parekatuak edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuz gero karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz, horren berri emango zaio Etika Publikorako Batzordeari, kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan”.

3.- Erabaki hau hartzeko, koherentzia-arrazoi agerikoak tarteko, eredutzat hartuko dira lehenengo puntuko erabakiak, eta, haietan azpimarratu dugunez, EJKren 15.5 apartatuan deskribatzen den kasuan dauden Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunek –alegia, karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuak direnek– “kontsulta egin” behar diote EPB honi. EJK-k, ordea, ez du berariaz arautzen zer erantzun eman behar zaion kontsulta horri, eta esaten duen gauza bakarra da EPBk “kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak” emango dituela horrelako egoera bat gertatzen denean. Ikusten den moduan, araua ez dago erabat osatua; izan ere, egitatezko gertakari bat definitzera mugatzen da, baina ez du zehazki xedatzen zer ondorio izango duen egintza horrek. EPB honen egitekoa da, kontsulta jaso ondoren, arau horren edukia integratzea, “kasu bakoitzean” zer egin behar den erabakitzeko. Horrek esanahi du EJK-k berariaz ematen diola eskumena Batzordeari “kasu bakoitzean” egokien irizten duen erabakia hartzeko, eta kode horren balioak eta printzipioak izango dira erabaki hori hartzean izango dituen lotura-erreferentzia orokor bakarrak.

4.- Aurreko puntuan adierazitakoari gaineratuta, EJKren 15.5 apartatuaren azken tartekiak arautzen du kargua kendu baldin bazitzaion kargudunari eta prozedura izapidetzean “egiaztatzen bada ez duela erantzukizunik” hau egingo dela kargua kendu zaionarekin: “Berririo emango zaio [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”.

Pasarte horren lehenengo eta gainerako irakurketa eginda bestelakorik irudi dezakeen arren, agindu horrek ez du baliogabetzen gorago zirriboratu dugun interpretazioa; aitzitik, berretsi egiten du. Puntu hau zehazterakoan, EJK idatzi zutenek erabili zuten esapideak –“kargua kendu baldin bazitzaion”– argi eta garbi uzten du goi-karguari kargua kautelaz kentzea, haien iritzian, aukera bat baino ez dela; hau da, EPBk eskura duen aukera-sortako beste aukera bat, eta ez, inondik ere, eskura duen aukera bakarra. Horregatik, hain justu, arautzen da, "egoera" jakin horretarako, derrigorrezkoa izango dela karguaz gabetua izan denaren errehabilitazio publikoa egitea, azkenean ez bazaio ezarri zigorrik edo zehapenik. Ez gainerako egoeretarako. Horren guztiaren jakitun, ondorioztatu behar da, EJK-k berariaz prozesu penal batean edo

administrazio-zehapen batean inputatutako kargudunaren kautelazko kargugabetzea bakarrik aipatzen duen arren, “kasu bakoitzean egokiena” dela irizten dionean soilik proposatu behar duela EPBk neurri hori –eta ez besterik–.

5.- Gorago adierazi dugun 5/2015 Erabaki horretan argudio-oinarri zabal bat ezarri genuen egoera hauen inguruan –bereziki nabarmentzen dira 5. puntutik 12. punturako argudioak– eta hona ekarri behar da argudio-oinarri hori. Hori horrela, kontuan hartu beharrekoak dira zer hiru aukera zehaztu diren aurreko puntuetan, erabakitzeke, berariaz, prozedura penalen edo administrazio-zehapenen izapidetzearen zer unetan den bateraezina eredugarritasun-printzipioa kargu publiko bat betetzearekin edo kargu publikoen izendatzearekin, baldin eta karguduna edo izangaia ikertua izaten ari baldin bada –lehen aukerak inputazioaren unea dela adierazten du, bigarrenak ahozko judizioa irekitzen den unea dela eta hirugarren aukerak, berriz, kondena-epaia edo inhabilitazio-zehapenaren ebazpena ematen den unea dela–, eta egokia dirudi, hasiera batean beti eta irizpide hori kasu jakin bakoitzera moldatzeko premia ekar dezaketen egoera puntualak alde batera utzita, bigarrenaren aukeraren alde egitea, hura baita hobekien eta proportzioa egokien zainduz bateratzen dituen eredugarritasun publikoaren eskakizunak eta herritarren eskubideei eta bermeei zor zaien begirunea. Eta hori guztia egin beharko litzateke, noski, argi eta garbi utzita ez litzatekeela izango aurreratutako kondena bat, ez eta gerora etorriko den kondena baten aurrerapena ere, kargu publikodun bat badaezpada ere kargutik kentzea, baldin eta horrelakorik egin beharko balitz auzitegi eskudunak ahozko judizioa irekitzea erabakitzen duen autoa eman duelako karguduna auzipetuta dagoen prozedura penal batean, baizik eta prebentziozko neurri profilaktiko soil bat izango litzateke, eredugarritasunaren balioari indar emateko erabakitakoa eta pertsona horrek zerbitzuan diharduen erakundearen irudi ona aldi baterako zaintzeko hartutakoa; hori horrela, EJK-k 15. apartatuko 5. puntuan adierazten duena kontuan hartuta, “prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodunak ez duela erantzukizunik, berriro emango zaio kargua [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”.

6.- Onartu berria da martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jardura arautzekoa, eta lege horrek kargu publiko bat eskuratu edo karguan irauteko aukera ematen die prozedura penal batean edo administrazio-zehapeneko izapidetze batean sartuta dauden pertsonen, harik eta kondena-epai irmo bat edo inhabilitazio-zehapeneko ebazpen bat ematen den arte, baina aukera hori ez da bateragarria Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen EJKrekin, alde horretatik estua eta zorrotza baita. Izan ere, kode hori eman da politikaren zentzu etikoa berrezarri eta herritarrek erakunde publikoetan eta haietan lan egiten duten kargu publikodunengan izan behar duten konfiantza berreskuratzeke.

7. - Beste muturrera joz gero, gehiegikeria bat izan daiteke inputazioaren unean finkatzea eredugarritasun-printzipioa eta kargu publiko baterako izendatua izatea edo kargu batean

jarraitzea bateraezin direneko momentua, eta horrek urratu dezake, neurri batean, legealdaketaren bidez babestu nahi den berme penalen eta prozesu-bermeen kultura. Arrisku hori are garbiago geratzen da urriaren 5eko 13/2015 Lege Organikoa (Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen duena, prozesuko bermeak sendotzeko eta ikerketa teknologikorako neurriak arautzeko) onartu ondoren (2015eko urriaren 6ko BOE, 239. zk.). Lege horren xedeetariko bat honako hau da: “legean bereizkuntzarik gabe eta inolako zehaztasun kontzeptualik gabe erabiltzen diren zenbait adierazpide ezabatzea, hala nola egotzi terminoa, hitz horrekin izendatzen baita susmo soil batzuk direla-eta ikerketapean dagoen pertsona bat, nahiz eta delako subjektuari buruz ez den existitzen delitu bat egin izana judizialki eta formalki egozteko moduko behar adinako zantzurik” (zioen azalpeneko V. apartatua). Beraz, epaitegian ikertu gisa deklaratzera deitutako kargu publikodun guztiak sistematikoki kargugabetzea proposatzeko adinako garrantzia emanez gero ikerketari, eta, beraz, ikertuaren figurari berari (ikertu gisa egin zaio deklaratzeko deia (...) andreari), horrek zuzenean talka egingo luke gizarteak ikerketaren larritasunari buruz izaten duen pertzepzioa arintzeko hartutako lege-erabakiarekin.

8.- Erabaki honen 5. puntuan izaera orokorrez hautatutako aukerari dagokionez, ez diogu alferreko irizten kasu bakoitzaren inguruabar zehatzen arabera aztertu eta moldatu behar litzatekeela azpimarratzeari; izan ere, ikertua izateko epailearen zitazio batek hemen zirriborro modura emandakoa baino epai etiko zorrotzagoa eska dezake, baldin eta oso delitu larrien ondoriozkoa baldin bada edo alarma soziala eragiten duten baldintzetan gertatu baldin bada. Aitzitik, litekeena da ahozko judizioa irekitzeak ez eragitea EPB honen gaitzespenik, baldin eta bidezko lehia politikoarekin lotutako jarduerak sorrarazi badute hura, hau da, beren izaerarengatik gure eskumen-esparrutik kanpokoak diren jarduerak.

9.- 4/2015 eta 7/2015 kasuetan ez bezala –merkataritzako prozedura judiziala bata, eta Estatuko Herri Kontuen Epaitegiak bideratutako zorpekoen itzulketa prozedura bestea, hurrenez hurren–, dagokigun kasu honetan bete egiten dira EJKren 15. apartatuaren 5. puntuak arautzen duen egitatezko gertakariarentzat zehaztuta dauden elementu guztiak, hots, kargu publikodunek EPB honi egoeraren “berri ematekoak”: kontsulta-egilea EJKri atxikitako kargu publikoduna da, eta ikertu gisa deklaratzeko zitazioa jaso du prozedura penal baten barruan.

10.- Haatik, Interesduna ikertu gisa deklaratzera zitatu duen prozedura judiziala (aurretiazko eginbideak) urrun dago oraindik ahozko epaiketaren irekieratik, eta kontuan izan behar da hori dela, hain justu, eredugarritasun-printzipioaren ondoriozko eskakizun etikoak betetzen hasteko ezarri dugun une prozesala (erabaki honen 5. puntuan ezarria); hau da, une horretan komeni da kargu publikodunek beren kargua kautelaz uztea, lan egiten duten erakundearen irudia babesteko.

11.- Gainerakoan, ez da erraza ikertutako gertakarien larritasuna neurtzea ikerketa gertatu den prozesu penalean planteatutako auziaren muina aldez aurretik epaitzeko arriskua hartu gabe, eta, noski, ez da hori, inondik inora ere, ez gure egitekoa, ez gure asmoa. Kontuan hartuta kereila ez duela fiskaltzak jarri, ez eta inolako agintaritzaren publikok ere, baizik eta (...)an diharduten sindikatuetako batek, gomendagarriena da erabaki honetako 5. puntuaren ezarritako irizpide orokorra mantentzea, hots, eredugarritasun-printzipioaren ondoriozko eskakizun profilaktikoak ahozko judizioa irekitzen den unera lotzea.

12.- Bestalde, dagokigun kasu honetan ere, interesdunari ez zaio deitu ikertu gisa deklaratzera eredugarritasunaren betebeharrarekin bateraezina den gizarte-alarmako egoera batean.

Hori guztia aintzat hartuta, EPBk erabaki hau hartu du, aho batez:

ERABAKIA:

1.- Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu Instrukzio Epaitegiak igortzen dizkion errekerimendu guztiak, aurretiazko eginbideak direla-eta (ikertu gisa deklaratzeko zitazioa egin zaio eginbide horietan).

2.- Ikusita ikerketa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa irekitzea erabakitzeko autoa ematen duen arte.

3.- Prozedura horren barruan egiten ari diren jarduera judizialen ondorioz ahozko judizioa irekiz gero, EPBk kautelazko neurri hau gomendatzen du kasu horretarako: ukitutako kargu publikoduna kargutik kentzea, kautelaz, EJKren 15 apartatuko 5. puntuaren eta erabaki honen 5. puntuaren adierazitakoaren ildotik.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 6a

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 2/2018

EUSKO JAURLARITZAKO (...)KO SAILEKO (...)AREN ZUZENDARI NAGUSI (...) JAUNAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO ERABAKIA, (...)KO INSTRUKZIOKO EPAITEGIAN IZAPIDETZEN ARI DIREN AURRETIAZKO EGINBIDEETAN IKERTU GISA DEKLARATZERA AGERTZEKO JASO DUEN DEIA DELA-ETA.

1.- Eusko Jaurlaritzako (...)ko Saileko (...)ren zuzendari (...) jaunak bi zitazio-zedula bidali zituen EPB-Etika Publikorako Batzordearen Idazkaritzara 2018ko martxoaren 28an bidalitako posta elektronikoen bidez: bata, (...)ko zuzendari nagusi (...)ena, eta, bestea, (...)ko zuzendari (...).

2.- Mezuarekin batera, zitazio-zedularen kopia bidali zen, (...)koa, eta bertan (..) jaunari eskatzen zitzaion Epaitegiaren egoitzan agertzeko, "ikertu gisa entzuna izateko, Prozedura Kriminalaren Legearen 486. artikuluan ezarritakoarekin bat, itxuraz delitu izan daitekeen prebarikazio administratibozko egitateengatik".

3.- Gertatutakoaren aurrekari subjektiboak zein materialak sakonago aztertuta, jakin izan da ezen interesdun jauna (...)ko Saileko (...)aren zuzendari nagusi izendatu zutela Dekretuaren bidez, garaiz eta forman atxiki zela Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Koderak (aurrerantzean, EJK) eta kargu publikodunen katalogoan sartu zela. Katalogo hori Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 28ko 1/2014 Legeak (aurrerantzean, JKIGL) 4.1 artikuluan dioena aplikatuz egin zen, eta irailaren 12ko 217/2017 Dekretuari gehitu zitzaion eranskin gisa.

4.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 apartatuaren bigarren tartekiak aipatzen dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du, aho batez:

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak

1.- Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodea (EJK) sortzearen helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea izan zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko erronkari erantzutea ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen

dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua integritatea eta eredugarritasuna sustatzea da, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren efizientzia sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- EJK-k bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorerraraztea, lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua; eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatatzat hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonak helarazitako gai eta zalantza etikoei.

3.- Horretarako, EJKren 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, EPBren eskumena da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kezak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Eskuartearen dugun erabakiaren gaia 5/2015, 6/2015, 9/2015, 13/2015, 3/2016, 4/2016, 6/2016, 7/2016, 8/2016, 4/2017, 5/2017, 7/2017, 8/2017, 9/2017 eta 1/2018 Erabakietan jasotzen denaren antzekoa da. Erabaki horietan guztietan, erantzuna eman diegu EAEko sektore publikoko kargu publiko batzuek Etika eta Jokabide Kodearen 15d) atalaren inguruan aurkeztutako kontsultei.

2.- Etika eta Jokabide Kodearen 15. atalak, zeinak “eredugarritasunari eta kanpoko beste adierazpen batzuei buruzko jokabideak eta portaerak” biltzen baititu, hau arautzen du bosgarren puntuan: “Kargu publikoren bat edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuz gero karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz, horren berri emango zaio Etika Publikorako Batzordeari, kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan”.

3.- Erabaki hau hartzeko, koherentzia-arrazoi agerikoak tarteko, eredutzat hartuko dira lehenengo puntuan aipatutako erabakiak, eta, haietan azpimarratu dugunez, Etika eta Jokabide Kodearen 15d) atalean deskribatzen den kasuan dauden Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikoek —alegia, karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz prozesu

penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuak direnek— “kontsulta egin” behar diote EPB honi. EJK-k, ordea, ez du berariaz arautzen zer erantzun eman behar zaion kontsulta horri, eta esaten duen gauza bakarra da EPBk “kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak” emango dituela horrelako egoera bat gertatzen denean. Ikusten den moduan, araua ez dago erabat osatua; izan ere, egitatezko gertakari bat definitzera mugatzen da, baina ez du zehazki xedatzen zer ondorio izango duen egintza horrek. EPB honen egitekoa da, kontsulta jaso ondoren, arau horren edukia integratzea, “kasu bakoitzean” zer egin behar den erabakitzeke. Horrek esanahi du EJK-k berariaz ematen diola eskumena Batzordeari “kasu bakoitzean” egokien irizten duen erabakia hartzeko, eta kode horren balioak eta printzipioak izango dira erabaki hori hartzean izango dituen lotura-erreferentzia orokor bakarrak.

4.- Aurreko puntuan adierazitakoari gaineratuta, Etika eta Jokabide Kodearen 15d) atalean jasotako arauaren azken tartekiaren arabera, “Prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodun eta parekatuek ez dutela erantzukizunik, errehabilitazio publikoari ekingo zaio. Horrenbestez, [...] kargua berriro emango zaio, edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”.

Pasarte horren lehenengo eta gainerako irakurketa eginda bestelakorik irudi dezakeen arren, agindu horrek ez du baliogabetzen gorago zirriboratu dugun interpretazioa; aitzitik, berretsi egiten du. Puntu hau zehazterakoan, EJK idatzi zutenek erabili zuten esapideak —“kargua kendu baldin bazitzaion”— argi eta garbi uzten du goi-karguari kargua kautelaz kentzea, haien iritzian, aukera bat baino ez dela; hau da, EPBk eskura duen aukera-sortako beste aukera bat, eta ez, inondik ere, eskura duen aukera bakarra. Horregatik, hain justu, arautzen da, "egoera" jakin horretarako, derrigorrezkoa izango dela karguaz gabetua izan denaren errehabilitazio publikoa egitea, azkenean ez bazaio ezarri zigorrik edo zehapenik. Ez gainerako egoeretarako. Horren guztiaren jakitun, ondorioztatu behar da, nahiz eta EJK-k berariaz aipatzen duen bakarra prozesu penal batean edo administrazio-zehapen batean ikertutako kargudunaren kautelazko kargugabetzea den, “kasu bakoitzean egokiena” dela irizten dionean soilik proposatu behar duela EPBk neurri hori —eta ez besterik—.

5.- Gorago adierazi dugun 5/2015 Erabaki horretan argudio-oinarri zabal bat ezarri genuen egoera hauen inguruan —bereziki nabarmentzen dira 5. puntutik 12. punturako argudioak—, eta hona ekarri behar da argudio-oinarri hori. Hori horrela, kontuan hartu beharrekoa da zer hiru aukera dauden, erabakitzeke eredugarritasun-printzipioak prozeduraren zein unetan bihurtzen dituen bateraezin batetik, kargu publiko batean jardutea eta, bestetik, prozedura penal bat edo administrazio-zehapeneko prozedura bat izapidetzea, baldin eta karguduna bada ikertua izaten ari dena —lehen aukerak inputazioaren unea dela adierazten du, bigarrenak ahozko judizioa abiarazten den unea dela eta hirugarren aukerak, berriz, kondena-epaia edo inhabilitazio-zehapenaren ebazpena ematen den unea dela—; eta egokia dirudi —hasiera batean eta alde batera utzita irizpide hori kasu jakin bakoitzera moldatzeko premia ekar dezaketen egoera puntualak— bigarren aukeraren alde egitea, hura baita ondoen eta

proportzioa egokien zainduz bateratzen dituen eredugarritasun publikoaren eskakizunak eta herritarren eskubideei eta bermeei izan behar zaien begirunea. Eta hori guztia egin beharko litzateke, noski, argi eta garbi utzita ez litzatekeela izango aurreratutako kondena bat, ez eta gerora etorriko den kondena baten aurrerapena ere, kargu publikodun bat badaezpada ere kargutik kentzea, baldin eta horrelakorik egin beharko balitz auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiatzea erabakitzen duen autoa eman duelako karguduna auzipetuta dagoen prozedura penal batean, baizik eta prebentziozko neurri profilaktiko soil bat izango litzateke, eredugarritasunaren balioari indar emateko erabakitakoa eta pertsona horrek zerbitzuan diharduen erakundearen irudi ona aldi baterako zaintzeko hartutakoa; hori horrela, EJK-k 15d) atalak arautzen duena kontuan hartuta, “prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodunak ez duela erantzukizunik, berriro emango zaio kargua [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”.

6.- Onartu berria da martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jardura arautzekoa, eta lege horrek kargu publiko bat eskuratu edo karguan irauteko aukera ematen die prozedura penal batean edo administrazio-zehapeneko izapidetze batean sartuta dauden pertsonari, harik eta kondena-epai irmo bat edo inhabilitazio-zehapeneko ebazpen bat ematen den arte, baina aukera hori ez da bateragarria Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen EJKrekin, alde horretatik estua eta zorrotza baita. Izan ere, kode hori eman da politikaren zentzu etikoa berrezarri eta herritarrek erakunde publikoetan eta haietan lan egiten duten kargu publikodunengan izan behar duten konfiantza berreskuratzeko.

7.- Beste muturrera joz gero, gehiegikeria bat izan daiteke kargu publiko batera iristea edo kargu batean jarraitzea eredugarritasun printzipioarekin bateraezin bihurtzen deneko une prozesala ikerketaren unean finkatzea, eta horrek lege-aldaketaren bidez babestu nahi den berme penalen eta prozesu-bermeen kultura urra dezake, neurri batean. Arrisku hori are garbiago geratzen da urriaren 5eko 13/2015 Lege Organikoa onartu ondoren (2015eko urriaren 6ko BOE, 239. zenbakia). Lege horrek Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen du, prozesuko bermeak sendotzeko eta ikerketa teknologikorako neurriak arautzeko, eta haren xedeetariko bat honako hau da: “legeak maiz eta terminologiaren alorrean zehatza izan gabe erabiltzen dituen esapide jakin batzuk kentzea, hala nola “ikertua”, zeina erabiltzen baita susmo hutsengatik ikertuak diren pertsonak izendatzeko oraindik zantzu nahikorik izan gabe pertsona horri ikuspegi judizialek eta modu formalean egozteko zigorgarria den ekintzaren bat egin izana” (Zioen Azalpeneko V. atala). Beraz, epaitegian ikertu gisa deklaratzera deitutako kargu publikodun guztiak sistematikoki kargugabetzea proposatzeko adinako garrantzia eman ez gero ikerketari, eta, beraz, ikertuaren figurari berari (ikertu gisa egin zaio deklaratzeko deia interesdun jaunari), horrek zuzenean talka egingo luke gizarteak ikerketaren larritasunari buruz izaten duen pertzepzioa arintzeko hartutako lege-erabakiarekin.

8.- Erabaki honen 5. puntuan izaera orokorrez hautatutako aukerari dagokionez, ez diogu alferreko irizten kasu bakoitzaren inguruabar zehatzen arabera aztertu eta moldatu behar litzatekeela azpimarratzeari; izan ere, ikertua izateko epailearen zitazio batek hemen zirriborro modura emandakoa baino epai etiko zorrotzagoa eska dezake, baldin eta oso delitu larrien ondoriozkoa baldin bada edo alarma soziala eragiten duten baldintzetan gertatu baldin bada. Aitzitik, litekeena da ahozko judizioa abiarazteak ez eragitea EPB honen gaitzespenik, baldin eta bidezko lehia politikoarekin lotutako jarduerak sorrarazi badute hura, hau da, beren izaerarengatik gure eskumen-esparrutik kanpokoak diren jarduerak.

9.- 4/2015 eta 7/2015 kasuetan ez bezala –merkataritzako prozedura judiziala bata, eta Estatuko Herri Kontuen Epaitegiak bideratutako zorpekoen itzulketa prozedura bestea, hurrenez hurren–, dagokigun kasu honetan, bete egiten dira EJKren 15.d) atalak arautzen duen egitatezko gertakariarentzat zehaztuta dauden elementu guztiak, hots, kargu publikoek EPB honi egoeraren "berri ematekoak": kontsulta-egilea EJKri atxikitako kargu publikoa da, eta ikertu gisa entzuna izateko zitazioa jaso du prozedura penal batean.

10.- Haatik, interesdun jauna ikertu gisa deklaratzera zitzatu duen prozedura judiziala urrun dago oraindik ahozko epaiketaren hasieratik, eta kontuan izan behar da hori dela, hain justu, eredugarritasun-printzipioaren ondoriozko eskakizun etikoak betetzen hasteko ezarri dugun une prozesala (erabaki honen 5. puntuan ezarria); hau da, une horretan komeni da kargu publikoek beren kargua kautelaz uztea, lan egiten duten erakundearen irudia babesteko.

11.- Gainerakoan, ez da erraza ikertutako gertakarien larritasuna neurtzea ikerketa gertatu den prozesu penalean planteatutako auziaren muina aldez aurretik epaitzeko arriskua hartu gabe, eta, noski, ez da hori, inondik inora ere, ez gure egitekoa, ez gure asmoa. Kontuan hartuta kereila ez duela fiskaltzak jarri, ez eta inolako agintaritzaren publikok ere, gomendagarriena da erabaki honetako 5. puntuan ezarritako irizpide orokorra mantentzea, hots, eredugarritasun-printzipioaren ondoriozko eskakizun profilaktikoak ahozko judizioa irekitzen den unera lotzea.

12.- Bestalde, dagokigun kasu honetan ere, ikertu gisa deklaratzeko zitazioa ez da egin eredugarritasunaren betebeharrarekin bateraezina den gizarte-alarmako egoera batean.

Hori guztia aintzat hartuta, EPBk erabaki hau hartu du, aho batez:

ERABAKIA:

1.- Interesdun jaunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu Instrukzio Epaitegiak igortzen dizkion errekerimendu guztiak, aurretiazko eginbideak direla-eta (ikertu gisa deklaratzeko zitazioa egin zaio eginbide horietan).

2.- Ikusita ikerketa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeko autoa ematen duen arte.

3.- Baldin eta prozedura horren barruan egiten ari diren jardura judizialetan ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen bada, Etika Publikorako Batzordeak kautelazko neurri hau gomendatzen du: kargu publikoa kargutik kentzea, Etika eta Jokabide Kodearen 15d) atalean eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den bezala.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 16a.

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 3/2018

EUSKO JAURLARITZAKO (...) SAILEKO (...)AREN (...)EKO ZUZENDARI (...) JAUNAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO ERABAKIA, INSTRUKZIOKO EPAITEGIAN IZAPIDETZEN ARI DIREN AURRETIAZKO EGINBIDEETAN IKERTU GISA DEKLARATZERA AGERTZEKO JASO DUEN DEIA DELA-ETA.

- 1.- Eusko Jaurlaritzako (...) Saileko (...)ko (...)en zuzendari (...) jaunak bi zitazio-zedula bidali zituen EPB-Etika Publikorako Batzordearen Idazkaritzara (...)an bidalitako posta elektronikoaren bidez: bata, (...)eko zuzendari nagusi (...)ena, eta, bestea, (...)eko zuzendari (...)ena.
- 2.- Mezuarekin batera, zitazio-zedularen kopia bidali zen, (...)ko (...)aren 5ekoa, eta bertan interesdunari eskatzen zaio Epaitegiaren egoitzan agertzeko, "ikertu gisa entzuna izateko, Prozedura Kriminalaren Legearen 486. artikuluan ezarritakoarekin bat, itxuraz delitu izan daitekeen prebarkazio administratibozko egitateengatik"
- 3.- Gertatutakoaren aurrekari subjektiboak zein materialak sakonago aztertuta, jakin izan da ezen (...) jauna zuzendari izendatu zutela Dekretuaren bidez, garaiz eta forman atxiki zela Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Koderak (aurrerantzean, EJK) eta kargu publikodunen katalogoan sartu zela. Katalogo hori Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak (aurrerantzean, JKIGL) 4.1 artikuluan dioena aplikatuz egin zen, eta irailaren 12ko 217/2017 Dekretuari gehitu zitzaion eranskin gisa.
- 4.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 apartatuaren bigarren tartekiak aipatzen dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du, aho batez:

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak

1.- Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodea (EJK) sortzearen helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea izan zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko erronkari erantzutea ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu

publikodunei eta parekatuei, haien jardura publikoak eta pribatuak bat etor daitezten dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua integritatea eta eredugarritasuna sustatzea da, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren efizientzia sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- EJK-k bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua; eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzen hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei.

3.- Horretarako, EJKren 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, EPBren eskumena da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Eskuartean dugun erabakiaren gaia 5/2015, 6/2015, 9/2015, 13/2015, 3/2016, 4/2016, 6/2016, 7/2016, 8/2016, 4/2017, 5/2017, 7/2017, 8/2017, 9/2017, 1/2018 eta 2/2018 Erabaketan jasotzen denaren antzekoa da. Erabaki horietan guztietan, erantzuna eman diegu EAEko sektore publikoko kargu publiko batzuek Etika eta Jokabide Kodearen 15d) atalaren inguruan aurkeztutako kontsultei.

2.- Etika eta Jokabide Kodearen 15. atalak, zeinak “eredugarritasunari eta kanpoko beste adierazpen batzuei buruzko jokabideak eta portaerak” biltzen baititu, hau arautzen du bosgarren puntuan: “Kargu publikoren bat edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuz gero karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz, horren berri emango zaio Etika Publikorako Batzordeari, kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan”.

3.- Erabaki hau hartzeko, koherentzia-arrazoi agerikoak tarteko, eredutzat hartuko dira lehenengo puntuan aipatutako erabakiak, eta, haietan azpimarratu dugunez, Etika eta Jokabide Kodearen 15d) atalean deskribatzen den kasuan dauden Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikoek —alegia, karguari dagozkion egiteko publikoari

lotutako gertaeren ondorioz edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuak direnek— “kontsulta egin” behar diote EPB honi. EJK-k, ordea, ez du berariaz arautzen zer erantzun eman behar zaion kontsulta horri, eta esaten duen gauza bakarra da EPBk “kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak” emango dituela horrelako egoera bat gertatzen denean. Ikusten den moduan, araua ez dago erabat osatua; izan ere, egitatezko gertakari bat definitzera mugatzen da, baina ez du zehazki xedatzen zer ondorio izango duen egintza horrek. EPB honen egitekoa da, kontsulta jaso ondoren, arau horren edukia integratzea, “kasu bakoitzean” zer egin behar den erabakitzeke. Horrek esanahi du EJK-k berariaz ematen diola eskumena Batzordeari “kasu bakoitzean” egokien irizten duen erabakia hartzeko, eta kode horren balioak eta printzipioak izango dira erabaki hori hartzean izango dituen lotura-erreferentzia orokor bakarrak.

4.- Aurreko puntuan adierazitakoari gaineratuta, Etika eta Jokabide Kodearen 15d) atalean jasotako arauaren azken tartekiaren arabera, “Prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodun eta parekatuek ez dutela erantzukizunik, errehabilitazio publikoari ekingo zaio. Horrenbestez, [...] kargua berriro emango zaio, edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”.

Pasarte horren lehenengo eta gainerako irakurketa eginda bestelakorik irudi dezakeen arren, agindu horrek ez du baliogabetzen gorago zirriboratu dugun interpretazioa; aitzitik, berretsi egiten du. Puntu hau zehazterakoan, EJK idatzi zutenek erabili zuten esapideak —“kargua kendu baldin bazitzaion”— argi eta garbi uzten du goi-karguari kargua kautelaz kentzea, haien iritzian, aukera bat baino ez dela; hau da, EPBk eskura duen aukera-sortako beste aukera bat, eta ez, inondik ere, eskura duen aukera bakarra. Horregatik, hain justu, arautzen da, "egoera" jakin horretarako, derrigorrezkoa izango dela karguaz gabetua izan denaren errehabilitazio publikoa egitea, azkenean ez bazaio ezarri zigorrak edo zehapenik. Ez gainerako egoerentarako. Horren guztiaren jakitun, ondorioztatu behar da, nahiz eta EJK-k berariaz aipatzen duen bakarra prozesu penal batean edo administrazio-zehapen batean ikertutako kargudunaren kautelazko kargugabetzea den, “kasu bakoitzean egokiena” dela irizten dionean soilik proposatu behar duela EPBk neurri hori —eta ez besterik—.

5.- Gorago adierazi dugun 5/2015 Erabaki horretan argudio-oinarri zabal bat ezarri genuen egoera hauen inguruan —bereziki nabarmentzen dira 5. puntutik 12. punturako argudioak—, eta hona ekarri behar da argudio-oinarri hori. Hori horrela, kontuan hartu beharrekoa da zer hiru aukera dauden, erabakitzeke eredugarritasun-printzipioak prozeduraren zein unetan bihurtzen dituen bateraezin batetik, kargu publiko batean jardutea eta, bestetik, prozedura penal bat edo administrazio-zehapeneko prozedura bat izapidetzea, baldin eta karguduna bada ikertua izaten ari dena —lehen aukerak inputazioaren unea dela adierazten du, bigarrenak ahozko judizioa abiarazten den unea dela eta hirugarren aukerak, berriz, kondena-epaia edo inhabilitazio-zehapenaren ebazpena ematen den unea dela—; eta egokia dirudi —hasiera batean eta alde batera utzita irizpide hori kasu jakin bakoitzera moldatzeko premia ekar

dezaketen egoera puntualak— bigarren aukeraren alde egitea, hura baita ondoen eta proportzioa egokien zainduz bateratzen dituen eredu-garritasun publikoaren eskakizunak eta herritarren eskubideei eta bermeei izan behar zaien begirunea. Eta hori guztia egin beharko litzateke, noski, argi eta garbi utzita ez litzatekeela izango aurreratutako kondena bat, ez eta gerora etorriko den kondena baten aurrerapena ere, kargu publikodun bat badaezpada ere kargutik kentzea, baldin eta horrelakorik egin beharko balitz auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiatzea erabakitzen duen autoa eman duelako karguduna auzipetuta dagoen prozedura penal batean, baizik eta prebentziozko neurri profilaktiko soil bat izango litzateke, eredu-garritasunaren balioari indar emateko erabakitakoa eta pertsona horrek zerbitzuan diharduen erakundearen irudi ona aldi baterako zaintzeko hartutakoa; hori horrela, EJK-k 15d) atalak arautzen duena kontuan hartuta, “prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodunak ez duela erantzukizunik, berriro emango zaio kargua [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”.

6.- Onartu berria da martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jardura arautzekoa, eta lege horrek kargu publiko bat eskuratu edo karguan irauteko aukera ematen die prozedura penal batean edo administrazio-zehapeneko izapidetze batean sartuta dauden pertsonen, harik eta kondena-epai irmo bat edo inhabilitazio-zehapeneko ebazpen bat ematen den arte, baina aukera hori ez da bateragarria Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen EJKrekin, alde horretatik estua eta zorrotza baita. Izan ere, kode hori eman da politikaren zentzu etikoa berrezarri eta herritarrek erakunde publikoetan eta haietan lan egiten duten kargu publikodunengan izan behar duten konfiantza berreskuratzeko.

7.- Beste muturrera joz gero, gehiegikeria bat izan daiteke kargu publiko batera iristea edo kargu batean jarraitzea eredu-garritasun printzipioarekin bateraezin bihurtzen deneko une prozesala ikerketaren unean finkatzea, eta horrek lege-aldaketaren bidez babestu nahi den berme penalen eta prozesu-bermeen kultura urra dezake, neurri batean. Arrisku hori are garbiago geratzen da urriaren 5eko 13/2015 Lege Organikoa onartu ondoren (2015eko urriaren 6ko BOE, 239. zenbakia). Lege horrek Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen du, prozesuko bermeak sendotzeko eta ikerketa teknologikorako neurriak arautzeko, eta haren xedetariko bat honako hau da: “legeak maiz eta terminologiaren alorrean zehatza izan gabe erabiltzen dituen esapide jakin batzuk kentzea, hala nola “ikertua”, zeina erabiltzen baita susmo hutsengatik ikertuak diren pertsonak izendatzeko oraindik zantzu nahikorik izan gabe pertsona horri ikuspegi judizialekin eta modu formalean egozteko zigorgarria den ekintzaren bat egin izana” (Zioen Azalpeneko V. atala). Beraz, epaitegian ikertu gisa deklaratzera deitutako kargu publikodun guztiak sistematikoki kargugabetzea proposatzeko adinako garrantzia eman ez gero ikerketari, eta, beraz, ikertuaren figurari berari (ikertu gisa egin zaio deklaratzeko deia interesdun jaunari), horrek zuzenean talka egingo luke gizarteak ikerketaren larritasunari buruz izaten duen pertzepzioa arintzeko hartutako lege-erabakiarekin.

8.- Erabaki honen 5. puntuan izaera orokorrez hautatutako aukerari dagokionez, ez diogu alferreko irizten kasu bakoitzaren inguruabar zehatzen arabera aztertu eta moldatu behar litzatekeela azpimarratzeari; izan ere, ikertua izateko epailearen zitazio batek hemen zirriborro modura emandakoa baino epai etiko zorrotzagoa eska dezake, baldin eta oso delitu larrien ondoriozkoa baldin bada edo alarma soziala eragiten duten baldintzetan gertatu baldin bada. Aitzitik, litekeena da ahozko judizioa abiarazteak ez eragitea EPB honen gaitzespenik, baldin eta bidezko lehia politikoarekin lotutako jarduerak sorrarazi badute hura, hau da, beren izaerarengatik gure eskumen-esparrutik kanpokoak diren jarduerak.

9.- 4/2015 eta 7/2015 kasuetan ez bezala –merkataritzako prozedura judiziala bata, eta Estatuko Herri Kontuen Epaitegiak bideratutako zorpekoen itzulketa prozedura bestea, hurrenez hurren–, dagokigun kasu honetan, bete egiten dira EJKren 15.d) atalak arautzen duen egitatezko gertakariarentzat zehaztuta dauden elementu guztiak, hots, kargu publikoek EPB honi egoeraren "berri ematekoak": kontsulta-egilea EJKri atxikitako kargu publikoa da, eta ikertu gisa entzuna izateko zitazioa jaso du prozedura penal batean.

10.- Haatik, (...) jauna ikertu gisa deklaratzera zitzatu duen prozedura judiziala urrun dago oraindik ahozko epaiketaren hasieratik, eta kontuan izan behar da hori dela, hain justu, eredugarritasun-printzipioaren ondoriozko eskakizun etikoak betetzen hasteko ezarri dugun une prozesala (erabaki honen 5. puntuan ezarria); hau da, une horretan komeni da kargu publikoek beren kargua kautelaz uztea, lan egiten duten erakundearen irudia babesteko.

11.- Gainerakoan, ez da erraza ikertutako gertakarien larritasuna neurtzea ikerketa gertatu den prozesu penalean planteatutako auziaren muina alde aurretik epaitzeko arriskua hartu gabe, eta, noski, ez da hori, inondik inora ere, ez gure egitekoa, ez gure asmoa. Kontuan hartuta kereila ez duela fiskaltzak jarri, ez eta inolako agintaritzaren publikok ere, gomendagarriena da erabaki honetako 5. puntuan ezarritako irizpide orokorra mantentzea, hots, eredugarritasun-printzipioaren ondoriozko eskakizun profilaktikoak ahozko judizioa irekitzen den unera lotzea.

12.- Bestalde, dagokigun kasu honetan ere, ikertu gisa deklaratzeko zitazioa ez da egin eredugarritasunaren betebeharrarekin bateraezina den gizarte-alarmako egoera batean.

Hori guztia aintzat hartuta, EPBk erabaki hau hartu du, aho batez:

ERABAKIA:

1.- (...) jaunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu Epaitegiak igortzen dizkion errekerimendu guztiak, aurretiazko eginbideak direla-eta (ikertu gisa deklaratzeko zitazioa egin zaio eginbide horietan).



2.- Ikusita ikerketa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeko autoa ematen duen arte.

3.- Baldin eta prozedura horren barruan egiten ari diren jarduera judizialetan ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen bada, Etika Publikorako Batzordeak kautelazko neurri hau gomendatzen du: kargu publikoa kargutik kentzea, Etika eta Jokabide Kodearen 15d) atalean eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den bezala.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 16a.

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 4/2018

ERABAKIA, (...) JAUNAK, (...)KO ZUZENDARI GERENTEAK, EGINDAKO KONTSULTARI BURUZ HARTUTAKOIA, INSTRUKZIO EPAITEGIAN IZAPIDETZEN ARI DIREN AURRETIAZKO EGINBIDEETAN IKERTU GISA DEKLARATZERA AGERTZEKO JASO DUEN DEIA DELA-ETA.

1.- Etika Publikorako Batzordeko Idazkaritzara bidalitako mezu elektronikoko bidez, 2018ko irailaren 25ean, interesdunak, (...)ko zuzendari nagusiak, jakinaren gainean jarri zuen Batzordea, “nire egoera judiziala zein den, Instrukzio Epaitegian aurkeztutako kereila kriminala dela-eta”.

Aurrekoari erantsi zion: “Egoera hau guztia izugarri bidegabea eta inolako oinarririk gabe iruditzen zait. Hasiera-hasieratik, egoera honen berri eman diot (...)ko Aholkularitza Juridikoari, zeina prozedura penalean agertu den eta kereilaren inguruko alderdi guztietan aholku eman didan; hortaz, edozein zalantza izanez gero, hari egin dakioke kontsulta, nire ustez”.

2.- 2018ko irailaren 28an, Etika Publikorako Batzordea (aurrerantzean EPB) harremanetan jarri zen kontsultaren sustatzailearekin, Epaitegiaren zitazio-zedula eskatzeko, eta eskaera egindako egun hartan bertan igorri zuen zedula, posta elektronikoz.

Zitazio-zedulak ikertu gisa deklaratzera deitzen du interesduna, Instrukzio Epaitegian izapidetzen ari diren aurretiazko eginbideetan. Eginbide horiek, hain zuzen, salaketa bat jarri zelako ireki ziren, ustez delitu hauek egiteagatik: zuhurtziagabekeria astunaren ondoriozko lesioak, iruzurra, agiri publikoak faltsutzea, intimitatearen aurkako delituak, sekretuak ezagutaraztea eta agertaraztea eta agintaritzak osotasun moralaren aurka egindako delitua.

3.- Gertatutakoaren aurrekariak –subjektiboak zein materialak– sakonago aztertuta jakin izanenez, interesduna (...)ko zuzendari gerente izendatu zuten (...)ko zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bidez; garaiz eta forman atxiki zen Etika eta Jokabide Kodera —Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Kodea (aurrerantzean, EJK)—; eta kargu publikodunen katalogoan sartu zen —Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak (aurrerantzean, JKIGL) 4.1 artikuluan dioena aplikatuz egindako katalogoa—, zeina martxoaren 31ko 217/2017 Dekretuaren eranskinean baitago.

4.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 apartatuaren bigarren tartekiak aipatzen dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du, aho batez:

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak

1.- Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako EJK sortzearen helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea izan zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko erronkari erantzutea ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua integritatea eta eredugarritasuna sustatzea da, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren efizientzia sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- EJK-k bost oinarritzko balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzen hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei.

3.- Horretarako, EJKren 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, EPBren eskumena da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kezak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Eskuartean dugun erabakiaren gaia 5/2015, 6/2015, 9/2015, 13/2015, 3/2016, 4/2016, 6/2016, 7/2016, 8/2016, 4/2017, 5/2017, 7/2017, 8/2017, 9/2017, 1/2018, 2/2018 eta 3/2018 Erabaketan jasotzen denaren antzekoa da. Akordio horietan guztietan, EAEko sektore publikoko hainbat kargu publikodunek aurkeztutako kontsultei erantzun diegu, EJKren 15.5 apartatuarekin lotutako kontsultak denak ere.

2.- EJKren 15. apartatuak, zeinak “eredugarritasunari eta kanpoko beste adierazpen batzuei buruzko jokabideak eta portaerak” biltzen baititu, hau arautzen du bosgarren puntuan: “Kargu publikodun eta parekatuak edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuz gero karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz, horren berri emango zaio Etika Publikorako Batzordeari, kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan”.

3.- Erabaki hau hartzeko, koherentzia-arrazoi agerikoak tarteko, eredutzat hartuko dira lehenengo puntuko erabakiak, eta, haietan azpimarratu dugunez, EJKren 15.5 apartatuan deskribatzen den kasuan dauden Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunek –alegia, karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuak direnek– “kontsulta egin” behar diote EPB honi. EJK-k, ordea, ez du berariaz arautzen zer erantzun eman behar zaion kontsulta horri, eta esaten duen gauza bakarria da EPBk “kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak” emango dituela horrelako egoera bat gertatzen denean. Ikusten den moduan, araua ez dago erabat osatua; izan ere, egitatezko gertakari bat definitzera mugatzen da, baina ez du zehazki xedatzen zer ondorio izango duen egintza horrek. EPB honen egitekoa da, kontsulta jaso ondoren, arau horren edukia integratzea, “kasu bakoitzean” zer egin behar den erabakitzeko. Horrek esan nahi du Etika eta Jokabide Kodeak berariaz ematen diola eskumena batzordeari “kasu bakoitzean” egokien irizten dion erabakia hartzeko, eta kode horren balioak eta printzipioak izango dira erabaki hori hartzean izango dituen lotura orokor bakarrik.

4.- Aurreko puntuan adierazitakoari gaineratuta, EJKren 15.5 apartatuaren azken tartekiak arautzen du kargua kendu baldin bazitzaion kargudunari eta prozedura izapidetzean “egiaztatzen bada ez duela erantzukizunik” hau egingo dela kargua kendu zaionarekin: “Berriro emango zaio [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”.

Pasarte horren lehenengo eta gainerako irakurketa eginda bestelakorik irudi dezakeen arren, agindu horrek ez du baliogabetzen gorago zirriboratu dugun interpretazioa; aitzitik, berretsi egiten du. Puntu hau zehazterakoan, EJK idatzi zutenek erabili zuten esapideak –“kargua kendu baldin bazitzaion”– argi eta garbi uzten du goi-karguari kargua kautelaz kentzea, haien iritzian, aukera bat baino ez dela; hau da, EPBk eskura duen aukera-sortako beste aukera bat, eta ez, inondik ere, eskura duen aukera bakarria. Horregatik, hain justu, “kasu” jakin horretarako soilik arautzen da derrigorrezkoa izango dela karguaz gabetua izan denaren errehabilitazio publikoa egitea, zigorrik edo zehapenik ez bazaio azkenean ezarri. Ez gainerako egoeretarako. Horren guztiaren jakitun, ondorioztatu behar da, EJK-k berariaz prozesu penal batean edo administrazio-zehapen batean inputatutako kargudunaren kautelazko kargugabetzea bakarrik aipatzen duen arren, “kasu bakoitzean egokiena” dela irizten dionean soilik proposatu behar duela EPBk neurri hori –eta ez besterik–.

5.- Gorago adierazi dugun 5/2015 Erabaki horretan argudio-oinarri zabal bat ezarri genuen egoera hauen inguruan –bereziki nabarmentzen dira 5. puntutik 12. punturako argudioak– eta hona ekarri behar da argudio-oinarri hori. Hori horrela, kontuan hartu beharrekoak dira zer hiru aukera zehaztu diren aurreko puntuetan, erabakitzeke, berariaz, prozedura penalen edo administrazio-zehapenen izapidetzearen zer unetan den bateraezina eredugarritasun-printzipioa kargu publiko bat betetzearekin edo kargu publikoen izendatzearekin, baldin eta karguduna edo izangaia ikertua izaten ari baldin bada –lehen aukerak inputazioaren unea dela adierazten du, bigarrenak ahozko judizioa irekitzen den unea dela eta hirugarren aukerak, berriz, kondena-epaia edo inhabilitazio-zehapenaren ebazpena ematen den unea dela–, eta egokia dirudi, hasiera batean beti eta irizpide hori kasu jakin bakoitzera moldatzeko premia ekar dezaketen egoera puntualak alde batera utzita, bigarrenaren aukeraren alde egitea, hura baita hobekien eta proportzioa egokien zainduz bateratzen dituen eredugarritasun publikoaren eskakizunak eta herritarren eskubideei eta bermeei zor zaien begirunea. Eta hori guztia egin beharko litzateke, noski, argi eta garbi utzita ez litzatekeela izango aurreratutako kondena bat, ez eta gerora etorriko den kondena baten aurrerapena ere, kargu publikodun bat badaezpada ere kargutik kentzea, baldin eta horrelakorik egin beharko balitz auzitegi eskudunak ahozko judizioa irekitzea erabakitzen duen autoa eman duelako karguduna auzipetuta dagoen prozedura penal batean, baizik eta prebentziozko neurri profilaktiko soil bat izango litzateke, eredugarritasunaren balioari indar emateko erabakitakoa eta pertsona horrek zerbitzuan diharduen erakundearen irudi ona aldi baterako zaintzeko hartutakoa; hori horrela, EJK-k 15. apartatuko 5. puntuan adierazten duena kontuan hartuta, “prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodunak ez duela erantzukizunik, berriro emango zaio kargua [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”.

6.- Onartu berria da martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jardura arautzekoa, eta lege horrek kargu publiko bat eskuratu edo karguan irauteko aukera ematen die prozedura penal batean edo administrazio-zehapeneko izapidetze batean sartuta dauden pertsonen, harik eta kondena-epai irmo bat edo inhabilitazio-zehapeneko ebazpen bat ematen den arte, baina aukera hori ez da bateragarria Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen EJKrekin, alde horretatik estua eta zorrotza baita. Izan ere, kode hori eman da politikaren zentzu etikoa berrezarri eta herritarrek erakunde publikoetan eta haietan lan egiten duten kargu publikodunengan izan behar duten konfiantza berreskuratzeko.

7. - Beste muturrera joz gero, gehiegikeria bat izan daiteke inputazioaren unean finkatzea eredugarritasun-printzipioa eta kargu publiko baterako izendatua izatea edo kargu batean jarraitzea bateraezin direneko momentua, eta horrek urratu dezake, neurri batean, legealdaketaren bidez babestu nahi den berme penalen eta prozesu-bermeen kultura. Arrisku hori are garbiago geratzen da urriaren 5eko 13/2015 Lege Organikoa onartu ondoren (2015eko urriaren 6ko BOE, 239. zenbakia). Lege horrek Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen du, prozesuko bermeak sendotzeko eta ikerketa teknologikorako neurriak arautzeko, eta haren

xedeetariko bat honako hau da: "legeak maiz eta terminologiaren alorrean zehatza izan gabe erabiltzen dituen esapide jakin batzuk kentzea, hala nola *inputatua*, hitz hori erabiltzen baita susmo hutsengatik ikertuak diren pertsonak izendatzeko oraindik zantzu nahikorik izan gabe pertsona horri ikuspegi judizialek eta modu formalean egozteko zigorgarria den ekintzaren bat egin izana" (Zioen Azalpeneko V. atala). Beraz, epaitegian ikertu gisa deklaratzera deitutako kargu publikodun guztiak sistematikoki kargugabetzea proposatzeko adinako garrantzia eman ez gero ikerketari, eta, beraz, ikertuaren figurari berari (ikertu gisa egin zaio deklaratzeko deia interesdunari), horrek zuzenean talka egingo luke gizarteak ikerketaren larritasunari buruz izaten duen pertzepzioa arintzeko hartutako lege-erabakiarekin.

8.- Erabaki honen 5. puntuan izaera orokorrez hautatutako aukerari dagokionez, ez diogu alferreko irizten kasu bakoitzaren inguruabar zehatzen arabera aztertu eta moldatu behar litzatekeela azpimarratzeari; izan ere, ikertua izateko epailearen zitazio batek hemen zirriborro modura emandakoa baino epai etiko zorrotzagoa eska dezake, baldin eta oso delitu larrien ondoriozkoa baldin bada edo alarma soziala eragiten duten baldintzetan gertatu baldin bada. Aitzitik, litekeena da ahozko judizioa irekitzeak ez eragitea EPB honen gaitzespenik, baldin eta bidezko lehia politikoarekin lotutako jarduerak sorrarazi badute hura, hau da, beren izaerarengatik gure eskumen-esparrutik kanpokoak diren jarduerak.

9.- 4/2015 eta 7/2015 kasuetan ez bezala –merkataritzako prozedura judiziala bata, eta Estatuko Herri Kontuen Epaitegiak bideratutako zorpekoen itzulketa prozedura bestea, hurrenez hurren–, dagokigun kasu honetan, bete egiten dira EJKren 15. apartatuko 5. puntuak arautzen duen egitatezko gertakariarentzat zehaztuta dauden elementu guztiak, hots, kargu publikoek EPB honi egoeraren "berri ematekoak": kontsulta-egilea EJKri atxikitako kargu publikoa da eta ikertu gisa deklaratzeko zitazioa jaso du prozedura penal batean.

10.- Haatik, interesduna ikertu gisa deklaratzera zitzatu duen prozedura judiziala (aurretiazko eginbideak) urrun dago oraindik ahozko epaiketaren hasieratik, eta kontuan izan behar da hori dela, hain justu, eredugarritasun-printzipioaren ondoriozko eskakizun etikoak betetzen hasteko ezarri dugun une prozesala (erabaki honen 5. puntuan ezarria); hau da, une horretan komeni da kargu publikoek beren kargua kautelaz uztea, lan egiten duten erakundearen irudia babesteko.

11.- Gainerakoan, ez da erraza ikertutako gertakarien larritasuna neurtzea ikerketa gertatu den prozesu penalean planteatutako auziaren muina alde aurretik epaitzeko arriskua hartu gabe, eta, noski, ez da hori, inondik inora ere, ez gure egitekoa, ez gure asmoa. Kontuan hartuta kereila ez duela fiskaltzak jarri, ez eta inolako agintaritzak publikok ere, gomendagarriena da erabaki honetako 5. puntuan ezarritako irizpide orokorra mantentzea, hots, eredugarritasun-printzipioaren ondoriozko eskakizun profilaktikoak ahozko judizioa irekitzen den unera lotzea.

12.- Bestalde, dagokigun kasu honetan ere, ikertu gisa deklaratzeko zitazioa ez da egin eredugarritasunaren betebeharrarekin bateraezina den gizarte-alarmako egoera batean.

Hori guztia aintzat hartuta, EPBk erabaki hau hartu du, aho batez:

ERABAKIA:

- 1.- interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu Instrukzio Epaitegiak igortzen dizkion errekerimendu guztiak, aurretiazko eginbideak direla-eta (ikertu gisa deklaratzeko zitazioa egin zaio eginbide horietan).
- 2.- Ikusita ikerketa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeko autoa ematen duen arte.
- 3.- Baldin eta prozedura horren barruan egiten ari diren jardura judizialetan ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen bada, EPBk kautelazko neurri hau gomendatzen du: ukitutako kargu publikoduna kargutik kentzea, kautelaz, EJKren 15. apartatuko 5. puntuan eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den bezala.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 8a.

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 5/2018

(...) EUSKO JAURLARITZAKO (...)AK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO ERABAKIA. KONTSULTA EGIN DU EUSKO JAURLARITZAK (...) SUSTATZEKO EGITEN DITUEN DEIALDIAK EBAZTEKO IZAPIDETU BEHAR DIREN ADMINISTRAZIO-PROZEDURETAN PARTE HARTZEN DUELAKO, ETA DEIALDI HORIETAKO BATERA KARGU PUBLIKODUN IZATEKO IZENDATU AURRETIK BESTE BATZUEKIN BATERA EGIN ZUEN (...) BAT OINARRI IZANGO DUEN PROIEKTU BAT AURKEZTU DELAKO.

1.- 2018ko urriaren 10ean interesduna, Eusko Jaurlaritzako (...)ak Etika Publikorako Batzorde honi zuzendutako kontsulta bat erregistratu zuen, non idazpuruan adierazitako gaiari buruz zer iritzi duen adierazteko eskatzen dion batzorde honi.

2.- Idazki horretan –erregistroan aurkeztu duen egunaren bezperakoa da–, kontsulta-egileak dio kargu publikodun izendatu aurretik (...)ko, (...)lari lanetan aritu zela urteetan. Eta gehitzen du, zehazki, produkturik ezagunena, beharbada, (...)ekin batera egin zuen (...) izan daitekeela, (...). (...)ak (...) etxeak argitaratu zituen; laugarrena, berriz, (...)ak.

3.- Jarraian, azaltzen du (...) (...)gileak interes handia adierazi duela. Eta gehitzen du “(...) asmoa” azaldu duela.

4.- Kontsulta-egileak azaltzen duenez, interesa azaldu duen eta (...) sortu zuen (...)aren arteko erlazioa juridikoki formalizatzen hasita daude dagoeneko. Horretarako, lehenengo akordio bat sinatu dutela azaldu du idazkian; “gure abokatuak azken xehetasunak lotzen ari dira orain” dio, egileei zer eskubide eta eskubide horiengatik zer ordainsari dagozkien adosteko.

5.- Hasierako akordio horretaz gain –EPB honek ez daki akordioa badela baino beste ezer gehiago–, interesdunak adierazi du (...) hasita daudela dagoeneko proiektua mugitzen. “Eusko Jaurlaritzak egiten dituen deialdietara aurkeztu dute proiektua, ohiko urratsak betez”. Eta, gainera, “(...)ak egiteko deialdira aurkeztu dira orain” nabarmendu du.

6.- Kontsulta egiteko aurkeztu den idazkian proiektua zehazki zer deialditara aurkeztu den aipatzen ez bada ere, EPB honek prozeduran zer izapide egin behar diren jakin dezan eta, hala badagokio, kontsulta egin digun kargu publikodunak prozedura horretan zertan parte hartzen duen ezagutu dezan, interesdunak hau azaldu du: “deialdia balorazio-batzorde batek ebazten du, eta guk ez daukagu horretan parte hartzerik”. Eta gehitzen du: “normalean, nik sinatzen dut batzordeak hartzen duen erabakia, batzordearen zeregina, hasiera batean behintzat,

aholkuak ematea baita, eta gurea, berriz, erabaki formal bat hartzea, haien proposamena aintzat hartuta”.

7.- Aurrekoa osatzeko, hauxe argitzen du: “ni proiektuko parte naizenez, eskubide-hartzaile naizen aldetik, aurtengo deialdia ez nuke sinatuko, sailburuak baizik”.

8.- Idazkiaren azken paragrafoan, kontsulta zer arrazoi pertsonalengatik egitea erabaki duen adierazten du: “Eusko Jaurlaritzan lan egiten dudanetik, jakina, ez dut beste (...)ik argitaratu; baina ezin uka aurretik egindako lana. Nire aurreko ibilbide profesionalarekin erlazionatutako gai bat da. Ez dut uste nire gaur egungo betebeharretatik eratorritako konpromiso etikoaren aurkakoa denik, baina zuen balorazioaren zain garatzen naiz”.

9.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 apartatuaren bigarren tartekiak aipatzen dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du, aho batez:

ERABAKIA

I.- AURREKARIAK

1.- Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodea (EJK) sortzeko helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea izan zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko erronkari erantzutea ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua integritatea eta eredugarritasuna sustatzea da, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- EJK-k bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein

Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonak helarazitako gai eta zalantza etikoei.

3.- Azken alderdi horri dagokionez, EJKren 16.3.1.a) letrak haxe zehazten du: “EPB izango da oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, Kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauatzeko prozedura jasoko du”.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Interesdunak egindako kontsultatik antzeman daiteke, (...) gisa egiten ari den lana alde batera utzita eta (...) izendatu aurretik egin zuen sormen-lanak sortu dizkion ustiapen- eskubideei dagokienez, haren abokatuak ari direla negoziatzen egileei zer eskubide eta ordainsari dagozkien.

2.- Ezin ezer esan, hasiera batean behintzat, alderdi horri buruz –ez daukagulako transakzio horri buruzko informaziorik–, baina ezin gogorarazi gabe utzi, prebentzioz bada ere, EJKren 14.2 apartatuak haxe dioela: "kargu publiko bat betetzen dutenek arduraldi osoa eta eskusiboa eman behar diote dagozkien funtzioak betetzeari, aplikatu beharreko legedian jasotakoaren arabera", eta indarrean egon eta kasu honi aplikatu beharreko arauak –ekainaren 26ko 1/2014 Legea, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen aurrerantzean, JKIGL– berariazko arauketa eskaintzen diola –12., 14. eta 19. artikulua– kargu publiko bat betetzearen eta izaera pribatuko merkataritza-jarduera, jarduera profesional edo industrial bat egitearen artean legez onartzeko moduko bateragarritasun-mugak non dauden definitzeari eta, hala badagokie, berariazko ebazpena behar duten bateragarritasun-eskabideek zer prozedura bete behar duten ezartzeari. Ziurtzat jotzen dugu, alderdi horri buruzko aipamenik egiten ez duenez, legeak ondorio horretarako ezarritako prozedura abiarazita duela kontsulta-egileak, eta jaso duela dagokion baimena. Eta hala egin ez badu, aditzera ematen diogu ahalik eta lasterren egiteko, puntu honetan, ikusi denez, EJK-k kargu publikoak betetzen ari direnei ezartzen dien parametro etikoa indarrean dagoen arauak ezarritako lege-parametroari helduz definitzen baita.

3.- Aurreko puntuan adierazitako gogoeta bera egiten dugu JKIGLren 22. artikuluan xedatutako araubidean kargu publikodunek titular diren sozietateetako sozietate-partaidetzetan bete behar dituzten ondare-mugetarako ere, sozietate horien titular beren kasa izan, zein ezkontidearekin –ezkontza-araubidea edozein dela ere–, izatezko bikotekidearekin edo beren seme-alabekin, ondorengoekin edo beren tutoretzapeko pertsonekin batera izan.

4.- Gainerakoari dagokionez, kontsultan azaltzen den gai nagusiak Eusko Jaurlaritzak (...) sustatzeko bultzatzen dituen deialdi publikoen ebazpenerako izapidetu behar diren administrazio-prozeduretan kontsulta-egile den (...)ko (...)eren egitekoarekin du zerikusia, kontuan hartuz kargu publiko izendatu aurretik kontsulta-egileak egin zuen (...) batean oinarritutako (...) bat dagoela aurkeztutako proiektuen artean.

5.- Administrazio-zuzenbidearen arau historiko eta oinarrizko bat da administrazio publikoetako agintariak eta langileak abstenitu egin behar dutela interes pertsonala duten gaietan; gaur egun, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2.a) artikuluan jasotzen da betebeharrak hori. Espezifikoki Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikoak betetzen ari direnei dagokienez, JKIGLren 10.1. artikuluan jasotzen da arau hori; horren arabera: "administrazio-prozedura erkidea arautzen duen araudian ezartzen diren abstenitzeko arrazoi diren kasuez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzura dauden kargu publikodunek abstenitu egin beharko dute interesa duten edo beren interesen alde egiten den jarduera, erabaki edo ekimenetan parte hartzetik". EJKn, 6. eta 11. apartatueta jaso da jarduera-jarraibide hori; 6.a kargu publikodunen integritateari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako jokabideei buruzkoa da, eta 11.a, berriz, onestasunari, desinteres subjektiboari eta interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabideei buruzkoa.

6.- 6. apartatuak zehatz-mehatz debekatzeko kargu publikodunei "postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak" erabiltzea "zuzenean edo zeharka norberarentzat abantailak lortzeko". Horrenbestez, eskatzen zaie ez egiteko aztertzen ari den gaiaren alde edo "faboritismo-nahiak eraginda jokatu dutela susmatzeko ezer", eta beren eskura dituzten bitarteko guztiak jartzeko, beren agindu edo erabakiak beste kargudun edo langile publiko batzuek bete behar badituzte, agindu eta erabaki horiek interes publikoari erantzuteko erabil daitezkeen; horrenbestez, ematen diren ebazpenek informazio fidagarrian oinarrituta egon behar dute (txostenak, azterlanak, proiektuak edo irizpenak), bai eta ebatzi beharreko gaiari lotuta eskura dauden datuen azterketa objektiboetan ere.

7.- Bestalde, 11. apartatuak interes-gatazka noiz sortzen den definitzen du, eta dio "kargu publikodunek beren postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan esku hartzean" sortzen dela interes-gatazka. Eta era honetako kasuetarako, ezartzen du kargu publikodunek abstenitu egin beharko dutela ezer egitetik, baldin eta egin beharreko horretan zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala badute, edo litekeena bada aipatutako interes-gatazka sortzea. Horretaz gain, ezartzen du kargu publikodun bati interes-gatazka izan daitekeen zerbaitek eragin badieziaioke, EPB honi adierazi beharko diola, eta, hala badagokio, abstenitu egiten dela ere formalizatu beharko duela Langileen Erregistro Zerbitzuan. Eta xedatzen du, azken batean, horrelako zerbit

gertatzen bada, nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko dituela bere ardurak, “edo, bestela, egoera horietan ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodunen baten esku”.

8.- Ondorioa argia da: kontsulta egin duen kargu publikodunak abstenitu egin behar du (...) sustatzeko egingo diren deialdiak izapidetzeko prozeduren fase guztietan parte hartzetik, baldin eta aurkeztutako proiektuetako bat bera kargu publikodun izendatu aurretik egiten lagundu zuen (...) oinarri duena bada, ustiapen-eskubideetan partaidetza bat ere bai baitu. EJKren 11e) apartatuan adierazten denez, Langileen Erregistro Zerbitzuan ere formalizatu beharko du abstenitu egiten dela, eta, jakina, saihestu egin beharko du dagozkion ebazpenak eman behar dituztenen irizpidea zuzenean edo zeharka bideratu edo baldintzatuko duen susmoa eragin dezakeen jarduera oro.

9.- EPB honi iritsi zaion idazkian, zeinak EJKren 11. apartatuan jasotzen den izapidea betetzeko balio duen, kontsulta-egileak adierazten du prozedura horiek izapidetzeko prozeduran “balorazio-batzorde” batek parte hartuko duela jasotzen dela, “zeinetan guk ez dugun parte hartzerik izango”, eta, gehitzen du, kasu honetan, gainera, saileko titular den sailburuak izenpetuko duela deialdia. Kontsultan aipatzen diren prozeduren arauak zehatz ezagutzen ez dituenak eduki beharreko arretatik, EPB honek uste du, printzipioz, nahikoak direla kargu publikodunak zuzen jardungo duela ziurtatzeko hartu diren kautelak, baina ez zaio alferrikakoa iruditzen abstentzioak erabatekoa izan behar duela errepikatzea, bai errealitatean bai itxuran, eta prozeduraren izapide guztiei eragin behar diela esatea.

Hori guztia aintzat hartuta, EPB honek aho batez erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

1.- Interesdunak EPB honi egin dion kontsultak EJKren 11e) apartatuan ezarritako betebeharra betetzen du: hain zuzen ere, “interes-gatazka izan daitekeen edozer Etika Publikorako Batzordeari berehala jakinaraztekoa”.

2.- Kontsulta egin duen kargu publikodunak abstenitu egin behar du (...) sustatzeko egingo diren deialdiak izapidetzeko prozeduren fase guztietan parte hartzetik, baldin eta aurkeztutako proiektuetako bat bera kargu publikodun izendatu aurretik egiten lagundu zuen (...) oinarri duena bada, ustiapen-eskubideetan partaidetza bat ere bai baitu. Horretaz gain, EJKren 11e) apartatuan adierazten denez, Langileen Erregistro Zerbitzuan ere formalizatu beharko du abstenitu egiten dela prozeduran parte hartzetik, eta saihestu egin beharko du dagozkion ebazpenak eman behar dituztenen irizpidea zuzenean edo zeharka bideratu edo baldintzatuko duen susmoa eragin dezakeen jarduera oro.

3.- Kontsultan aipatzen diren prozeduren arauak zehatz ezagutzen ez dituenak eduki beharreko arretatik, EPB honek uste du, printzipioz, nahikoa dela kargu publikodunak zuzen jardungo duela ziurtatzeko hartu den erabakia –sinatzeko ardura saileko sailburuari ematea–, baina ez zaio alferrikakoa iruditzen abstentzioak erabatekoa izan behar duela errepikatzea, bai errealitatean bai itxuran, eta, aurreko puntuan azaldutako egoera gertatzen denean, prozeduraren izapide guztiei eragin behar diela esatea.

4.- Ziurtzat jotzen dugu, kontsulta-egileak bere idazkian egile-eskubideak izateko (...)aekin negoziatzen ari den akordioaren edukiri buruz ezer esaten ez duenez, interesdunak abiarazi duela ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 19. artikuluan (Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen) ezartzen den legezko prozedura, eta hala egin ez badu, ahalik eta lasterren egiteko iradokitzen diogu, puntu honetan, EJK-k kargu publikoak betetzen ari direnei ezartzen dien parametro etikoa indarrean dagoen arauak ezarritako lege-parametroari helduz definitzen baita.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 30a